

GURASO ETA HEZKUNTZA KOMUNITATERAKO

FORMAZIO EKINTZEN PROGRAMA 2019-2020

| ARLOAK | SAIOETARAKO EDUKIAK |
|--|---|
| 1. EBOLUZIO ETA NORTASUNAREN GARAPENA | Haur-nerabeen eboluzio-garapenaren etapak eta alderdi esanguratsuak, pentsamenduak, gurasoekiko loturak... |
| 2. AUTOKONTZEPTU ETA AUTOESTIMUAREN INDARTZEA | Autokontzeptu eta autoestimua eraketa, hauen eragileak, gurasoen aldetik kontuan hartu beharrekoak, haur-nerabeek bere buruarekiko segurtasuna nola indartu... |
| 3. DIZIPLINA POSITIBOA ETA ARAUEN ADOSTE/EZARPENA | Seme-alaben portaeraren ulermena, jarrera ezegokien aurrean nola jokatu, autonomiaren eta auto-erregulazioaren sustatzea, ondorioak nola ezarri, autoritatea mantentzearen beharra... |
| 4. ADIMEN EMOZIONALA | Emozio eta sentimenduen identifikazioa, ulermena eta kudeaketa, generoa eta emozioak haurtzaro zein nerabezaroan, nola lagundu gure seme-alabei beren emozioak adierazten, frustrazioarekiko tolerantzia... |

| ARLOAK | SAIOETARAKO EDUKIAK |
|---|---|
| <p>5. KOMUNIKAZIO ESTRATEGIAK ETA GATAZKEN EBAZPENAK</p> | <p>Gure seme-alabekin hartu-emanak, egunerokotasunean suertatutako gatazkak, familia elkarbizitza, negoziazioa eta akordioak, komunikazio trebetasunak...</p> |
| <p>6. PERTSONA ZEIN KIDEEEN ARTEKO HARREMAN OSASUNTUAK</p> | <p>Enpatiaren garrantzia, generoa eta aniztasuna harremanetan, adiskidetasuna, kideen arteko gatazkak, nola sustatu familiarik berdintasunezko harremanak eskolan, Eskola Jazarpena...</p> |
| <p>7. DOLUAK</p> | <p>Doluaren faseak, honen aurrean gure seme-alabak nola lagundu, gai "zailei" buruz nola hitz egin beraiekin...</p> |
| <p>8. FAMILIA ETA ESKOLA ARTEKO HARREMANAK</p> | <p>Ikaskuntza prozesuak, adimen anitzak, motibazioa, ikasketa ohiturak, eskola eta familia elkarrekintza, etxerako lanen pertsonalizazioa...</p> |
| <p>9. TEKNOLOGIA BERRIAK ETA SARE SOZIALAK</p> | <p>Pantailek eta internet haurtzaro zein nerabezaroan izan ditzaketen eraginak, erabilera arautzearen beharra, sare sozialen nondik norakoak, bideojokoen abantaila zein desabantailak, kideen arteko hartu-emanak sare sozialen bidez, interneteko eduki ezegokiei sarbidea oztopatzeko segurtasun-konfigurazioak, pribatutasuna zaintzeko jarraibideak...</p> |

ARLOAK

SAIOETARAKO EDUKIAK

10. GURASO ELKARTEAK (IGE) ETA ORDEZKAPEN ORGANU GORENAK (OOG)

Alde batetik, IGE-ak eta bestetik, OOG-ek eskola bizitzan izandako parte-hartzea eta antolamendua.

Kontuan hartzekoak:

- Taldeak parte-hartzaileen seme-alaben adinen arabera izatea gomendagarri litzateke; esate baterako, Haur Hezkuntzako taldea, Lehen Hezkuntzako taldea eta Bigarren Hezkuntzako taldea.
- Bloke bakoitzeko saio kopurua, hauen eskatzaileekin adostuko genuke.
- Bertan agertutako edukiak bereziki gurasoei zuzenduak badaude ere, Hezkuntza Komunitateko beste hezitzaileek (irakasleak eta begiraleak) interesa izanez gero, edukiak beren bizipen zein egoeretara egokitzen ditugu.
- Saio bakoitza ordu eta erdikoa izan ohi da; hauek, alde teorikoaz gain, praktikoa ere izanik.
- Guraso formaziorako saio bakoitzeko kostua, bazkide diren Guraso Elkarteentzat 110€-koa da. Eskola-hezitzaileen formazioaren kasuan, aldiz, eskaeraren arabera, honek aldaketak izango ditu.
- 10. arloak, ez du kosterik izango bazkide diren Guraso Elkarteentzat eta ondorioz, ezta hauen eskoletako OOG-entzat ere.